

Kartoizko galdera ikurra

Galdera bat daukat zuretzat, U:

Autobusean idatziak dira berbok, gonbito tantak hatz lodiaz okotzean harrapatu eta berriz ahoratu bitartean. Masailak hamsterrek bezala. Nazka ahoan eta porlana ahosabaian. Koadernoak altzoan eta arkatza belarrarian, badaezpada; oihartzun desiragaitzen aurkako totem, edo berauen sortzaile izango zelakoan. Eskerrak astearte gaua zen, alboan inor eseri ez zitzaidan, eta txoferrak irratia topera jarri zuen; irratia piztuta baldin badago neure buruak ez baitaki beste ezer egiten: entzun, aditu eta dena delako horretan pentsatu, kasu horretan futbola. Eskerrak astearte gaua zen, txoferrak irratia topera jarri zuen eta zuk autobusa galdu zenuen; bestela gonbitoa zugatik zela pentsatuko zenukeen, segur. Eta egiari zor, zuk ere sortu izan didazu gonbitolarria; autobuseko hauts, izerdi eta bero usain homogeneousatu horrek sortzen didana baino larriagoa, gainera.

“Maitasuna gorroto dugunontzat, gorroto gutunak amodiozko gutunen parekoak dira. Alta, nik oraindik ez dakit maite ala gorroto zaitudan, ala biak. Ala bat ere ez.

Gorroto ditut zure galtzerdiak, batez ere beti galtzerdiekin egoteko daukazun ohitura txar hori; dutxatu ez beste dena galtzerdiekin. Hankak hozten zaizkizu eta hankak hozten bazaizkizu seko gaixotzen zara, bai, badakit. Baina tira, gaixotzea ere ez da hainbesteko zorigaitza. Behatz mamiak lurraren kontra igurztega maite dut nik, orpoak beltz edukitzea, galtzerdi zulatuak eta galtzerdi motzak, neguko boten barruan pixkanaka orkatilatik hanka puntetaraino irristatzen diren galtzerdiak: pausua pinguinotzera naramatenak... Ezberdinak gara horretan ere.

Une okaztagarriak mahaigaineratzen hasita, ondo gogoan dut heriori ezkerreko begian sardeska sartu zenionekoa. Egiatzko malkoak harenak direlako, eta haiek zurrupatu nahi zenituelako; mihi puntaz jaso, elur malutak jasotzen diren moduan. Behin egiatzko malkoak zelakoak diren jakinda, betiko egiten da benetan negar. Beldur unibertsal bati min ematea mundua salbatzeko modu bat da. Edo hori uste izan zenuen.

Begizuloak ezkatatu arte egin duzu negar ordutik; izokin ahul bat zara. Handia, baina ahula. Errekan gora joan nahi, baina plastikozko bandeja batean preso, nik labean noiz sartuko zain; patatekin.

Kanika bi begizuloak zaintzen. Koilara batekin erauziko dizkizut; eta ahoratu. Nazka eta plazeraren arteko muga zein den jakin nahi dut, akaso hori da emango didazun azken

irakaspena, irakaspenik merezi badut. Ez ditut, ordea, kanikak irentsiko; ez naiz horren ausarta, ez dizut ni barrutik ikustearen plazera salduko, ez musu-truk behintzat.

Zure malkoz betetako botila bat daukat ohe azpian gordeta; tragoxka bat ematen diot ahoan itsasoa sentitu nahi dudanean: ur botilak, konpresa puztuak, patata zorro ajatuak ahoan. Hori da zu biluzik ikusteko daukadan modua; biluzik, bai. Galtzerdirik gabe; edo galtzerdi batekin bakarrik.

Hau da zuk ni biluzik ikusteko daukazun modua, ez dakit ulertuko duzun.”

Honakoa, beraz, ia idazketa automatikoan idatzitako kartoizko galdera ikur hau, irakurketa ez hain automatikoa merezi duena. Koadernoko bi orri eta arkatz hozkatu baten mintzoa. Zeuk erabaki, gorde ala edukiontzi urdinera bota; baina ez erantzun.

PD: Edo erantzun, baina malkoz betetako botila bat bedi erantzuna; gastatzen ari zait eta.

Besarkada bat,

X.